

1. EREMUA: Harmonia hazten

Konpetentzia espezifikokoak

1. Gorputzaren ezagutza eta kontrolean aurrera egitea, bere ekintzak inguruneko errealitatera modu seguruan egokituz, auto irudi doitu eraikitze.

Ebaluazio-irizpideak

1.1 Gorputzaren atal nagusien ezagutza aurrera egitea eta gorputzaren koordinazioa eta kontrola hobetzea, inguruarekin izandako interakzio ludiko eta espontaneo bidez oreka eta zentzumenera pertzepzioa garatzen hasiz.

1.2 Onarpena eta errespetua erakustea norbere gorputzarekiko eta besteekienarekiko eta Segurtasun pertsonala izaten hastea jolasetan eta eguneroko egoera askotan, konfidantza izaten hasiz bere ekintza eta mugimendu aukeretan.

1.3. Hainbat objektu, tresna eta erreminta anitzez baliatzea jolasetan eta eguneroko zereginetan, gorputzeko mugimenduaren koordinazioaren kontrola progresiboa garatuz.

1.4. Ekosistemetan (ikasteko espazioetan) eta jolas ez-estereotipuetan parte hartzea bere aukera pertsonalak adieraziz.

1. Ondo entzuten du: burua biratzen du bere izena entzundakoan, eta zaratak aztoratzen du.
2. Ondo ikusten du: objektu, ipuin eta jostailuak distantzia egoki batera edukitzen ditu, ez ditu begiak behartzen eta ez da burua okertzen begiratzeko.
3. Laguntzarekin eskaileretan gora eta behera hankak txandakatuz ibiltzen da.
4. Hanka baten gainean egoten da.
5. Erori gabe korrika egiten du.
6. Trizikloan ibiltzen da (pedalduna edo gabea).
7. Pilota ostikoz jotzen, jaurtitzen eta hartzen du.
8. Marra zuzenak edo zirkuluak kopiaitzen ditu.
15. Arropak bakarrik erantzten ditu (botoiak izan ezik), eta laguntzarekin janzten da.

2. Progresiboki emozioak ezagutzea, adieraztea eta erregulatzea beharrak eta sentimenduak adieraziz ongizate emozionala eta segurtasun afektiboa lortzeko.

Ebaluazio irizpideak

2.1. Emozioak eta Sentimenduak adieraztea eta identifikatzen hastea erregulazio emozionalerako estrategiak erabiliz.

2.2. Eguneroko egoeretan laguntza eskatzea eta eskeintzea, nahitasuna onartuz eta harremanei eta lankidetzari balorea emanez.

2.3. Gogoko duena adieraztea, lorpenekin gogobetuz adieraziz.

11. Beste sentipenak "ulertzen" ditu (poza, tristura, haserrea,).

3. Eredu, arau eta ohiturak bereganatzea, aukera propioetan konfiantza eta lorpen sentimenduak garatuz, ekologiarekiko eta gizartearekiko arduratsua den bizimodu osasuntsua bultzatzeko.

Ebaluazio irizpideak

3.1. Norberaren zaintzarekin lotutako estrategiak eta jarduerak egiten hastea, konfiantza eta inizatiba adierazten hasiz.

3 urte

3.2. Jardueren denborazko segida, erritmo biologikoak eta eguneroko bizitza egituratzen duten jarraibide soziokulturalak ezagutu eta errespetatzen hasia, errutinetara ohituz.

14. Jolasetan txandak eta arauak errespetatu ditzake.

4. Berdintasun baldintzak dituzten gizarte-interakzioak ezartzea, laguntasunaren, errespetuaren eta enpatia garrantzia balioetsiz, balio demokratikoetan eta giza eskubideen errespetuan oinarrituta bere nortasun propioa eraikitzeko.

Ebaluazio irizpideak

4.1. Jolasetan parte hartzen hasia beste ume batzuekin, harreman osasuntsuetan ezarri.

4.2. Behatutako jokaera eta egoerak errepikatzea jolas sinbolikoren bidez eta Errespetuan oinarritutako jokabideak eta egoerak erreproduzitzea giza eskubideen errespetuan oinarritutakoak.

4.3. Berdinekin gatazkak kudeatzen hasia eta akordioak lortzea pertsona helduaren bitartekaritzarekin, bizikidetasuna eta dibertsitatea bezalako balioak bultzatuz.

4.4. Hainbat egoeretan aukerak proposatzen hasia beste pertsona batzuen iritzia entzunez.

4.5. Bere ingurunean dauden ohitura eta tradizio etniko eta kulturalekin lotutako jardueretan parte hartzen hasia, horiek ezagutzeko interesa adieraziz.

9. Besteak imitatzen ditu, bai bere adinekoak bai helduak ere.

10. Lagun edo ikaskideekiko maitasuna adierazten du.

12. Panpina, animalia edo pertsonen eguneroko bizimoduko ekintzak imitatuz jolas sinbolikoetan aritzen da.

13. Lagunekin jostailuak partekatzen ditu eta besteekin aritzen da.

2. EREMUA: Ingurunea ezagutzea eta esploratzea.

Konpetentzia espezifikoak

1. Materialen, objektuen eta bildumen ezaugarriak identifikatzea eta haien arteko loturak ezartzea, esplorazioaren, zentzumen-manipulazioaren eta tresna errazak erabiltzearen bidez, trebetasun logiko-matematikoak garatzeko.

Ebaluazio irizpideak

1.1. Objektu batzuen artean hainbat lotura egitea oinarritzko ezaugarriak kontuan hartuz interesa adieraziz.

1.2. Oinarritzko zenbatzaile eta kuantifikatzaile esanguratsu batzuk erabiltzen hasia jolasaren bidez.

1.3. Ohiko espazioetan era egokian kokatzen hasia, norberaren gorputzarekin eta objektuekin jolastuz.

3 urte

1.4. Neurtzea beharrezkoa den egoera batzuk identifikatzen hastea eta neurketarako gorputza erabiltzen hastea.

1.5. Haien jarduera antolatzen hastea, denborazko segiden ordena ikusiz eta ulertzen hasiz.

2. Metodo zientifikoaren prozedurak eta pentsamendu konputazionalaren trebetasunak garatzea pixkanaka, objektuak behatzeko eta manipulatzeko prozesuen bidez, ingurunea interpretatzen hasteko eta planteatzen diren egoerei eta erronkei sormenez erantzuteko.

Ebaluazio irizpideak

2.1 Egoerak, zailtasunak edo arazoak kudeatzen hastea inizatiba adieraziz eta maila berekoekin elkarlanean aritzen hasiz.

2.2. Frustrazioa bideratzeko estrategiak ezagutzea eta erabiltzen hastea.

2.3. Elementu batzuk manipulatzeko horien portaerari buruzko hipotesiak planteatzen hastea eta egiaztatzen hastea.

2.4. Erabakiak hartzen hasteko eta konponbideak aurkitzeko asmoz hainbat estrategia proposatzen eta erabiltzen hastea sormena erabilia.

2.5. Zeregin analogiko edo digitaletarako ekintza batzuetan parte hartzen hastea oinarritzko kompetentzia digitala garatzen hasiz.

2.6. Proiektuetan parte-hartzen hastea norberaren iritziak partekatzen hasiz.

3. Naturaren elementuak eta fenomenoak ezagutzea, eta naturan eragina duten ohiturekiko interesa agertzea, pertsonen bizitzan ingurunea modu iraunkorrean erabiltzeak, zaintzeak eta kontserbatzeak duen garrantzia jabetzeko.

Ebaluazio irizpideak

3.1. Natura-ingurunea errespetatzeko balio duten ekintza onak izendatzea alde positiboak eta negatiboak identifikatzen hasiz. Naturako elementuak errespetatzea eta horiekin gozatzea.

3.2. Izaki bizidunek eta bizigabeek dituzten ezaugarri batzuk identifikatzen hastea.

3.3. Naturako hainbat fenomeno behatzen hastea eta identifikatzea eguneroko bizitzan dituzten ondorioak azalduz.

3. EREMUA: . Komunikazioa eta errealitatearen adierazpena.

Kompetentzia espezifikak

1. Eguneroko egoeretan komunikazio-errepertorioaren eta esplorazioaren bidez interakzioak izateko interesa adieraztea beharrak eta asmoak adierazteko eta inguruneko eskakizunei erantzuteko.

Ebaluazio irizpideak

1.1. Era espontaneoan bakoitzaren ezberdintasunekin hainbat komunikazio-egoeretan parte hartzen hastea interakzioetan eta eguneroko komunikazioa testuinguruetan parte hartuta eta hainbat komunikazio-sistema erabilia. .

3 urte

1.2. Lengoaia eta Hizkuntza ezberdinak erabiltzen diren egoeretan parte hartzen hastea, interesa erakutsiz eta komunikazio egoerez gozatuz errespetuzko jarrerarekin.

1.3. Baliabide eta tresna digitalen erabilerara hurbiltzen hastea.

2. Mezuak eta adierazpenak interpretatzea norberaren ezagutzetan eta baliabideetan oinarrituz ingurunearen eskakizunei erantzuteko eta ikaskuntza berriak eraikitzeke.

Ebaluazio irizpideak

2.1 Arte-adierazpenen bidez edo formatu digitalean igorritako mezuak interpretatzen hastea jakinminez eta era egokian erantzutea.

3. Hainbat lengoaia eta hizkuntza erabiliz, horietako bakoitzaren kodeak ezagutuz eta komunikazio-beharrei erantzuteko dituzten adierazpen-aukerak miatuz, mezuak modu eraginkorrean, pertsonalean eta sortzailean gauzatzea.

Ebaluazio irizpideak

3.1. Ahozko-hizkuntza era praktikoa erabiltzen hastea gero eta hiztegi aberatsagoa eta askotarikoa erabiliz.

3.2. Ahozko hizkuntza erregulaziorako tresna gisa erabiltzen hastea beste umeeekin izaten dituzten interakzioetan.

3.3. Ahozko narrazioaren bidez ideiak espontaneotasunez adieraztea.

3.4. Sorkuntza plastikoak egitea hainbat material eta teknika erabiltzen hasiz eta talde-lanetan parte hartzen hasiz.

3.5. Dramatizazio- eta musika-proposamenak interpretatzen hastea hainbat tresna, baliabide eta materiala erabiliz eta esploratzen hasiz.

3.6. Norberaren mugimendua gorputz adierazpen libre gisa, espaziora egokitzen hastea interesa adieraziz.

3.7. Hainbat erreminta edo aplikazio-digital batzuk erabiltzen hastea.

4. Idatzizko testuekin lotutako jardueretan parte hartzea norberaren inizatibarekin, funtzionalitatea eta ezaugarrietako batzuk ulertzeko interesa eta jakinmina adieraziz.

Ebaluazio irizpideak

4.1. Kode-idatzien bidez komunikatzeko interesa adierazten hastea, konbentzionalak izan ala ez.

4.2. Paratestuaren ezaugarri batzuk identifikatzen hastea .

4.3. Gelako liburutegira jotzen hastea gozamina lortzeko erabilerarako arauak errespetatzen hasiz.

5. Komunikazio-estrategiak eta kultura-ezagutza aberasteko, haurren ingurunean dagoen aniztasun linguistikoa eta beste kultura-adierazpenak baloratzea.

Ebaluazio irizpideak

3 urte

5.1. Bere inguruneko hizkuntza- eta kulturaaniztasunean normaltasunez harremanak izaten hasia, beste hizkuntza, etnia eta kultura batzuekiko interesa adierazten hasiz.

5.2. Atzerriko hizkuntzako komunikazio-elkarekintzetan parte hartzen hasia.

5.3. Haur-literaturara hurbiltzeko jardueretan parte hartzea, banakakozein taldeko jardueretan, interesa eta gozamina adieraziz.

5.4. Emozioak eta ideiak arte- eta kultura-adierazpenen bidez adierazten hasia, hezkuntza prozesuaz gozatuz.

5.5. Arte-adierazpenen aurrean gustuak adierazten hasia, horien gozamenak sorrarazten dizkien emozioak azaltzen hasiz.

ARRETA GOIZTIARRAREN ESKALAKO ITEMAK SARTU BEHAR DIRA.